Sin./Fdo.: OIER MUNARRIZ FERNANDEZ - 2026-02-24
GARRAIOAK ANTOLATZEKO ZERBITZUKO BURUA
JEFE/A SERVICIO DE ORDENACIÓN DEL TRANSPORTE
Sin./Fdo.: XABIER ESTEBAN CELAYA - 2026-02-24
GARRAIOEN ZUZENDARIORDEA
SUBDIRECTOR/A TRANSPORTES
Sin./Fdo.: ANTONIO JARAICES SALAZAR - 2026-02-24
GARRAIOEN ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE TRANSPORTES
Sin./Fdo.: SONIA PEREZ EZQUERRA - 2026-02-24
GARRAIOAK, MUGIKORTASUNA ETA TURISMOA SUSTATZEKO SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES, MOVILIDAD Y TURISMO
Akordioa/Acuerdo: OF 00116/2026 - Data/Fecha: 2026-02-24
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2026-02-24

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

# GARRAIOAK, MUGIKORTASUNA ETA TURISMOA SUSTATZEKO FORU DIPUTATUAREN FORU AGINDUA, TAXILARIAK BILBOKO AIREPORTUAN, BEC-EN ETA BILBON BIDAIARIAK HARTU AHAL IZATEKO APARTEKO TXANDAK EZARTZEN DITUENA, MAKINA-ERREMINTAREN BIURTEKOA DELA-ETA.

Garraioen Antolamendu Zerbitzuak

JAKINARAZTEN DU:

Taxiaren jarduera erregulatzen duen araudiaren arabera, zerbitzuak, oro har, lizentziaren udalerrian hasi behar dira. Salbuespenen artean, araubide bereziko eremuetan (aireportuak eta portuak, esaterako) edo zerbitzu bateratuak emateko eremuetan emandako zerbitzuak daude.

2025ean Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa sustatzeko Saileko foru-diputatuaren hainbat foru-aginduren bidez, Bizkaiko taxilariei udalerritik kanpo kargatzeko baimena eman zitzaien, Europa Leagueko finala eta Enlit Kongresua zirela eta.

Oro har, esperientzia hoiek positiboak izan ziren erabiltzailearen ikuspegitik, baina kontuan hartu behar da BECen eta Loiuko aireportuan taxientzako dagoen espazio mugatua.

Makina-Erremintaren Biurtekoa Bilbao Exhibition Centren (BEC) egingo da, 2026ko martxoaren 2tik 6ra, 9:00etatik 17:00etara, egun horietako bakoitzean.

Erakundeak berak adierazi duenez, 40.000 pertsona bertaratuko dira ospakizunaren bost egunetan, eta horietatik % 6 atzerritarrak izango dira, gutxi gorabehera, eta % 40 baino gehiago Estatuko gainerako jatorrietakoak .

# ORDEN FORAL DE LA DIPUTADA FORAL DE TRANSPORTES, MOVILIDAD Y TURISMO, POR LA QUE SE ESTABLECEN TURNOS EXTRAORDINARIOS PARA QUE TAXISTAS PUEDAN RECOGER A PERSONAS VIAJERAS EN EL AEROPUERTO DE BILBAO, EN BEC Y EN BILBAO CON OCASIÓN DE LA BIENAL DE MÁQUINA HERRAMIENTA.

El Servicio de Ordenación del Transporte

INFORMA:

De acuerdo con la normativa reguladora de la actividad del taxi, los servicios se deben iniciar, como regla general, en el municipio de la licencia. Entre las excepciones se encuentran los servicios prestados en zonas de régimen especial (como aeropuertos y puertos) o áreas de prestación conjunta.

De forma extraordinaria, en 2025 mediante diferentes Órdenes Forales de la Diputada Foral de Transportes, Movilidad y Turismo se autorizó a taxistas de Bizkaia a cargar fuera del municipio con ocasión de la final de Europa League y del Congreso Enlit.

En general, esas experiencias resultaron positivas desde el punto de vista de la persona usuaria, pero hay que tener en cuenta el espacio limitado para taxis que hay tanto en el BEC como en el Aeropuerto de Loiu.

La Bienal de Máquina-Herramienta se celebra en Bilbao Exhibition Centre (BEC) del 2 al 6 de marzo de 2026, con un horario de visita de 9:00 a 17:00 cada uno de esos días.

La propia organización cifra una asistencia esperada de 40.000 personas durante los cinco días de celebración, de los cuales un 6% aproximadamente serán extranjeros y más de un 40% del resto del Estado.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8DCJ-5XSG-KOOR-4AA7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bilboko aireportuan normalean kargatu ditzaketen 111 baimenak eta BECen kargatu ditzaketen Barakaldoko 70 taxiak (gutxi-gora-behera) ez dira nahikoak hain jendetsua den ekitaldira bertaratzen diren pertsonei arreta emateko.

Las 111 autorizaciones que normalmente pueden cargar en el Aeropuerto de Bilbao y los aproximadamente 70 taxis de Barakaldo que pueden cargar en el BEC resultan insuficientes para atender a las personas asistentes a un evento tan multitudinario.

Horrez gain, Bilboko arratsaldeetan eskariak gora egitea espero da (18:00etatik aurrera).

Además se espera un pico de demanda por las tardes en Bilbao (a partir de las 18:00).

Antolatzaileek eskatu dute Bizkaiko Foru Aldundiak Europa Leagueko finala eta Enlit Kongresua direla-eta hartutako neurrien antzekoak har ditzala, bai Bilboko Aireporturako (bisitari asko iristen dira bertatik), bai BECerako (ekitaldia egiten den lekua).

Los organizadores han solicitado que la Diputación Foral de Bizkaia adopte medidas similares a las adoptadas con ocasión de la final de Europa League y del congreso Enlit, tanto para el Aeropuerto de Bilbao (desde donde llegan muchos asistentes) como para el BEC (lugar de celebración del evento).

Ezkerraldeko taxilarien elkarte adierazgarrienak (Astane) BEC indartzeko proposamena egin du.

La Asociación más representativa de taxistas de la margen Izquierda (Astane) ha realizado una propuesta de refuerzo para BEC.

Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa sustatzeko Sailak eskertzen du elkarte horren proposamena eta aldez aurreko jarrera, baina ez dira nahikoa neurritzat jotzen, eta, beraz, Garraioen Antolamendu txanda zabalagoak ezartzea proposatzen du.

Desde el Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo se agradece la propuesta y la predisposición de dicha Asociación pero se consideran medidas insuficientes por lo que el Servicio de Ordenación del Transporte propone establecer unos turnos más amplios.

Egun librean dauden taxilarien aldeko lehentasuna neurri egokitzat jotzen da, kasuan kasuko udalerrietan zerbitzua ez dela aldatuko ziurtatzeko.

La preferencia por los taxistas que se encuentren en día de libranza se considera una medida adecuada para asegurar que la prestación del servicio en los municipios respectivos no se vea alterado.

Baina udalerri guztiek ez dute egun librerik arautu. Beraz, beharrezkotzat jotzen da bide bat antolatzea udalerri horietako taxilari-kopuru baliokide bat ere joan dadin, nahi izanez gero.

Pero no todos los municipios tienen regulado día de libranza. Por lo que se considera necesario instrumentar una vía para que un número equivalente de taxistas de estos municipios (una quinta parte en cada turno) puedan acudir también, si así lo desean.

BECen kasuan, taxien eskaria eta taxientzat erreserbatutako espazioa aireportukoa baino txikiagoa da; beraz, beharrezkotzat jotzen da distantziaren irizpide objektibo bat gehitzea, taxi kopurua mugatzeko.

En el caso del BEC, la demanda de taxis y el espacio reservado para taxis es inferior al del Aeropuerto, por lo que se considera necesario establecer un criterio objetivo de distancia para limitar el número de taxis.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8DCJ-5XSG-KOOR-4AA7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Azaldutakoaren arabera, eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Foru Erakundeen Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko 3/1987 Foru Arauak, Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa sustatzeko Sailaren egitura organikoari buruzko Erregelamendua onartzen duen BFAren 84/2024 Foru Dekretuak eta horiekin bat datozen gainerako xedapenek ematen dizkidaten ahalmenak erabiliz, sinatzen dugunok Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa sustatzeko Saileko foru diputatuari honako proposamen hau egiten dio:

En virtud de lo expuesto, y en aplicación de las facultades conferidas por la Norma Foral 3/1987 sobre Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del THB, el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 84/2024 que aprueba el Reglamento de estructura orgánica del Departamento Foral de Transportes, Movilidad y Turismo y demás disposiciones concordantes, quien suscribe tiene a bien someter a la Diputada foral de Transportes, Movilidad y Turismo la siguiente propuesta de:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8DCJ-5XSG-KOOR-4AA7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

FORU AGINDUA

LEHENENGOA.- BECen egingo den Makina-Erremintaren Biurtekoa dela eta, Bizkaiko automobiletan bidaiariak garraiatzeko (VT) lizentzien titularrei ezohiko **baimena ematea**, **Bilboko aireportuan** bidaiariak hartzeko baldintza batzuk betetzen badituzte.

Baimen berezi hori honako 5 txanda berezi hauetara mugatzen da:

- Martxoak 1 (igandea), 7:45etik 15:00etara eta 15:00etatik itxi arte.
- Martxoak 2 (astelehena), 7:45etik 15:00etara.
- Martxoak 3 (asteartea), 7:45etik 15:00etara.

Egun libreak dituzten udalerrietan:

- Astelehen eta astearteko txandetan, dagokien eguna libre dutenek lan egin ahal izango dute.
- Igandeko txandetan, igande horretan libratzen duten langileek lan egin ahal izango dute (librantza arrunteko eguna asteazkena, osteguna edo ostirala bada). Taximetroak igandean lan egiten uzten ez badie, ezin izango dira aireportura joan.

Egun librerik ez duten udalerrietan:

- Txanda bakoitzean udalerriko taxien bosten bat joan ahal izango da, udalerri horrek gutxienez 4 taxi aktibo baditu.
- Proportzionalki banatu beharko dira 5 txanden artean, eta taxilari batek ezin izango du txanda bat baino gehiagotara joan.

Ez dira sartu hiru taxi aktibo edo gutxiago dituzten udalerriak, udalerria taxi zerbitzurik gabe ez uzteko.

Ondorio horietarako, taxi aktibotzat hartuko dira VT baimenen bisatua igaro duten udalerriko taxien kopurua, aireportuan normalean kargatu ditzaketen baimenak deskontatu ondoren.

Adibidez, Erandion baimena indarrean duten 9 taxi badaude eta normalean aireportura 3 joan badaitezke, 6 taxi aktibo daude.

ORDEN FORAL

PRIMERO.- **Autorizar**, de forma extraordinaria, a personas titulares de licencias de transporte de personas viajeras en automóviles de turismo (VT) de Bizkaia que cumplan ciertos requisitos para recoger a personas viajeras **en el Aeropuerto de Bilbao**, con ocasión de la Bienal de Máquina-Herramienta que se celebra en BEC.

Esta autorización extraordinaria se circunscribe a los siguientes 5 turnos extraordinarios:

- Día 1 de marzo (domingo), de 7:45 a 15:00 y de 15:00 a cierre.
- Día 2 marzo (lunes), de 7:45 a 15:00 y de 18:00 a cierre.
- Día 3 marzo (martes), de 7:45 a 15:00

En los municipios con día de libranza:

- En los turnos del lunes y martes, podrán acudir al Aeropuerto quienes libran el día respectivo.
- En los turnos del domingo, podrán trabajar las personas que libran ese domingo (cuyo día de libranza ordinario sea miércoles, jueves o viernes). Si el taxímetro no les permite trabajar en domingo, no podrán acudir al Aeropuerto.

En los municipios sin día de libranza:

- Podrá acudir en cada turno una quinta parte de taxis del municipio, siempre que dicho municipio tenga, al menos, 4 taxis activos.
- Se tendrán que repartir de forma proporcional entre los 5 turnos, sin que un mismo taxista pueda acudir a más de un turno.

No se ha incluido a los municipios con tres taxis activos o menos, para no dejar al municipio sin servicio de taxi.

A estos efectos, se consideran taxis activos, nº de taxis del municipio que hayan pasado el visado autorización VT, una vez descontados autorizaciones que pueden cargar normalmente el aeropuerto.

Por ejemplo, si en Erandio hay 9 taxis con la autorización visada y pueden acudir normalmente 3 al Aeropuerto, el nº de taxis activos es de 6.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8DCJ-5XSG-KOOR-4AA7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

**BIGARRENA**.- BECen egingo den Makina-Erremintaren Biurtekoa dela eta **BECeko taxi-geltokian** bidaiariak hartzeko Bizkaiko zenbait udalerritako automobiletan bidaiariak garraiatzeko (VT) lizentzien titularrei ezohiko **baimena ematea**. baldintza batzuk betetzen badituzte.

Ekitaldiaren egun bakoitzeko bisita-ordutegiaren amaiera-ordua 17:00etan denez, baimen hau ezarri da aparteko 5 txanda hauetarako:

- Martxoaren 2, 3, 4, 5 eta 6an, 15:30etik 18:00etara.

Hasiera batean, honako hauek izango dute baimena txanda horietan BECen kargatzeko:

- Egun libreko egun bat araututa duten udalerri jakin batzuetan, egun horretan libre dauden taxilariak bakarrik.
- Egun libragarria araututa ez duten udalerri jakin batzuetatik, udalerriaren taxien bosten bat, baldin eta udalerri horrek gutxienez 4 taxi aktibo baditu.

Egun librerik ez duten udalerrietan:

- Proportzionalki banatu beharko dira 5 txanden artean, eta taxilari batek ezin izango du txanda bat baino gehiagotara joan.

Ez dira barne hartzen hiru taxi aktibo edo gutxiago dituzten udalerriak, udalerria taxi zerbitzurik gabe ez uzteko

Hala ere, zerbitzuaren antolaketa eraginkorra eta trafikoaren kudeaketa serioski zaildu dezakeen espaziorik eza dela eta, beharrezkoa da beste muga bat ezartzea.

BECen kasuan:

- BECeko taxi-geltokiaren esparrua txikiagoa da aireportuan baino, eta auto-ilaretan arazo larriak daude sarri.
- Taxien eskaria aireportuan baino baxuagoa izatea espero da; izan ere, pertsona askok beren hoteletik joango dira aireportura (eta hotel gehienak Bilbon daude).

**SEGUNDO**.- **Autorizar**, de forma extraordinaria, a personas titulares de licencias de transporte de personas viajeras en automóviles de turismo (VT) de algunos municipios de Bizkaia que cumplan ciertos requisitos para recoger a personas viajeras en la **parada de taxis del BEC**, con ocasión de la Bienal de Máquina-Herramienta que se celebra en el BEC.

Como la hora fin del horario de visitas de cada día del evento es a las 17:00, se establece esta autorización para los siguientes 5 turnos extraordinarios:

- Días 2, 3, 4, 5 y 6 de marzo, desde las 15:30 a las 18:00.

En principio, estarán autorizados a cargar en BEC en dichos turnos:

- De determinados municipios que tengan regulado un día de libranza, tan solo las personas taxistas que se encuentren de libranza ese día.
- De determinados municipios que no tengan regulado día de libranza, una quinta parte de taxis del municipio, siempre que dicho municipio tenga, al menos, 4 taxis activos.

En los municipios que no tengan día de libranza:

- Se tendrán que repartir de forma proporcional entre los 5 turnos, sin que un mismo taxista pueda acudir a más de un turno.

No se ha incluido a los municipios con tres taxis activos o menos, para no dejar al municipio sin servicio de taxi.

Sin embargo, debido a la falta de espacio que puede dificultar seriamente una organización eficaz del servicio y la gestión del tráfico es necesario establecer una limitación por razón de la distancia al Aeropuerto.

En el caso del BEC:

- El espacio de la parada de taxis del BEC es más reducido que en el Aeropuerto, con serios problemas de retenciones de tráfico.
- La demanda de taxis se espera inferior al Aeropuerto, ya que muchas personas se desplazarán al Aeropuerto desde su hotel (y la mayoría de hoteles se encuentran en Bilbao).

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8DCJ-5XSG-KOOR-4AA7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Horregatik, egokitzat jotzen da BECen kargatu dezaketen taxilariei muga bat eranstea, irizpide gisa udaletxetik BECera dagoen kilometro-distantzia ezarriz (errepidez).

Por eso, se considera oportuno añadir un límite a los municipios cuyos taxistas pueden cargar en el BEC, estableciendo como criterio la distancia en kilómetros (por carretera) del Ayuntamiento respectivo al BEC.

Barakaldo ondoko udalerrietako taxilariei bakarrik kargatzeko aukera ematea aztertu ondoren, egokiagotzat jo da udala BECetik errepidez 10 kilometro baino gutxiagora duten udalerrietako taxilariak BECen kargatu ahal izatea.

Tras valorar la posibilidad de permitir cargar solo a los taxistas de municipios contiguos a Barakaldo, se ha considerado más adecuado que puedan cargar en el BEC taxistas de municipios cuyo Ayuntamiento se encuentre a menos de 10 kilometros por carretera del BEC.

Ondorio horietarako, Meatzaldea udalerri bakartzat jotzen da, Bizkaiko Foru Aldundiak prestazio bateratuko eremuak ezartzea sustatu nahi baitu.

A estos efectos, la zona de Meatzaldea se considera un municipio único, ya que la Diputación Foral de Bizkaia quiere incentivar el establecimiento de zonas de prestación conjunta.

Beraz, Sestao, Portugalete, Santurtzi, Meatzaldea, Erandio, Leioa, Getxo eta Sondikako taxilariak joan ahal izango dira BECera, Laugarren ataleko baldintzak betez.

Por tanto, podrán acudir al BEC, cumpliendo los requisitos del apartado Cuatro, taxistas de: Sestao, Portugalete, Santurtzi, Meatzaldea, Erandio, Leioa, Getxo y Sondika.

Irizpideak bete arren, Bilbo baztertu egin da, hotel gehienak Bizkaiko hiriburuan daudelako, eta txanda berberetan Bilbon eskaria areagotzea aurreikusten delako.

Se excluye a Bilbao a pesar de cumplir los criterios porque la mayoría de hoteles se encuentra en la capital vizcaína y se prevé un pico de demanda en Bilbao durante los mismos turnos.

<u>HIRUGARRENA</u>.- BECen egingo den Makina-Erremintaren Biurtekoa dela eta, Bizkaiko automobiletan bidaiariak garraiatzeko (VT) lizentzien titularrei ezohiko **baimena ematea**, **Bilboko hirian** bidaiariak hartzeko baldintza batzuk betetzen badituzte.

<u>TERCERO</u>.- **Autorizar**, de forma extraordinaria, a personas titulares de licencias de transporte de personas viajeras en automóviles de turismo (VT) de Bizkaia que cumplan ciertos requisitos para recoger a personas viajeras **en el municipio de Bilbao**, con ocasión de la Bienal de Máquina-Herramienta que se celebra en el BEC.

Ekitaldiaren egun bakoitzeko bisita-ordutegiaren amaiera-ordua 17:00etan denez, baimen hau ezarri da aparteko 5 txanda hauetarako:

- Martxoaren 2, 3, 4, 5 eta 6an, 18:00etatik 23:59ra.

Como la hora fin del horario de visitas de cada día del evento es a las 17:00, se establece esta autorización para los siguientes 5 turnos extraordinarios:

- Días 2, 3, 4, 5 y 6 de marzo, desde las 18:00 a las 23:59.

Bisitari asko Bilboko hoteletatik aireportura edo Bizkaiko beste toki batzuetara joatea espero da.

Se espera que muchas personas visitantes se desplacen desde sus hoteles en Bilbao al Aeropuerto o a otros puntos de Bizkaia.

Bilbon txanda horietan kargatzeko baimena honako hauek baino ez dute izango:

- Librantza-egun bat araututa duten

Solo estarán autorizados a cargar en Bilbao en dichos turnos:

- De los municipios de Bizkaia que tengan

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8DCJ-5XSG-KOOR-4AA7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaiko udalerrietatik (Bilbo barne), egun horretan libre dauden taxilariak bakarrik.

Ez da beharrezkotzat jotzen egun librea araututa ez duten Bizkaiko udalerrietako taxilariek zerbitzua ematea, dagokien udalerrian zerbitzua eman behar dutela uste baita.

Gainera, errefortzuak egun librean dauden taxilariei mugatzea komeni da, hain eremu geografiko zabalean agintarien kontrola errazten baitu.

LAUGARRENA.- Aurreko puntuentzako **baldintza komunak** ezartzea, bidaiariak Bilboko aireportuan, BECen eta Bilbon kargatzeko, ezarritako aparteko txandetan.

Batez ere, egun librea duten taxilariek ezin izango dute aireportura errefortzu gisa joan, baldin eta bere udalak egun horretan salbuespen gisa lan egiteko eskatu badie; hortaz, udalerrian zerbitzua emateak lehentasuna du aireportua, BEC edo Bilbo indartzearen aldean.

Udaletako taxilariek aparteko txandak indartu nahi badituzte, aurreko hiru ataletan ezarritakoaren arabera, otsailaren 28a baino lehen jakinarazpen bat aurkeztu beharko dute Garraioen Antolamendu Zerbitzuari zuzendua, BFAren egoitza elektronikoaren eskabide orokor baten bidez.

Komunikazio hori udalak, udalerriko elkarte esanguratsuenak edota besteen ordezkari gisa diharduen taxilari batek aurkeztu ahal izango du jakinarazpen hori, honako hauek zehaztuta:

- Udalerrian aktibo dauden taxien kopurua (bisak eta aireportuko baimen arruntak deskontatzea).
- Aparteko txanda bakoitzean joango den taxilarien lizentzia-zenbakia eta matrikulak (txanda bat zatitu gabe).

Ondorio horietarako, bosgarren zatitzat hartzen da taxi aktiboen kopurua zati bost eginda lortzen den gertuen dagoen zenbaki osoa.

regulado un día de libranza (incluyendo Bilbao), tan solo las personas taxistas que se encuentren de libranza ese día.

No se considera necesario que presten servicio taxistas de los municipios de Bizkaia que no tengan regulado día de libranza, ya que se presume que es necesario que presten servicio en su municipio respectivo.

Además, conviene limitar los refuerzos a taxistas en día de libranza ya que facilita el control de las autoridades en un ámbito geográfico tan amplio.

CUARTO.- Establecer las **condiciones comunes** a los apartados anteriores, para cargar a personas viajeras en el Aeropuerto de Bilbao, en BEC y en Bilbao durante los turnos extraordinarios establecidos.

Ante todo, no podrán acudir al Aeropuerto como refuerzo los taxistas en día de libranza cuyo municipio haya solicitado que trabajen de forma excepcional, de forma que prestar servicio en el municipio tiene preferencia respecto a reforzar el Aeropuerto, BEC o Bilbao.

En el caso de municipios cuyos taxistas quieran reforzar los turnos extraordinarios, en virtud de lo establecido en los tres Apartados anteriores, deberán presentar con anterioridad al día 28 de febrero una comunicación dirigida al Servicio de Ordenación del Transporte mediante instancia genérica de la sede electrónica de la DFB.

Dicha comunicación la podrá presentar el Ayuntamiento, la asociación más representativa del municipio o un taxista que ejerza como representante de los demás, concretando:

- El número de taxis activos del municipio (visados y descontando autorizaciones ordinarias del aeropuerto).
- El nº de licencia y las matrículas de los taxistas que acudirá en cada turno extraordinario (sin que un taxi pueda repetir turno en cada uno de los tres lugares).

A estos efectos, se considera quinta parte, el número completo más cercano que resulte de dividir el número de taxis activos entre cinco.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8DCJ-5XSG-KOOR-4AA7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Adibide gisa:

| Taxi aktiboak | Gehiengo baimen berezi kopurua txanda bakoitzeko |
|---|---|
| 4tik 7ra | 1 |
| 8tik 12ra | 2 |
| 13tik 17ra | 3 |
| 18tik 22ra | 4 |
| 23tik 27ra | 5 |
| 28tik 32ra | 6 |
| 33tik 37ra | 7 |
| 38tik 42ra | 8 |
| 43tik 47ra | 9 |
| 48tik 52ra | 10 |
| Eta horrela gainerakoak | |

BOSGARRENA.- Foru agindu hau Bizkaiko Foru Aldizkarian argitara dadila agintzea. Osagarri gisa, Interneteko atariaren (bizkaia.eus) gunean argitaratuko da, mota horretako ebazpenetarako erreserbatuta.

SEIGARRENA.- Foru agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa sustatzeko diputatuari, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluen arabera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean, bi hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legearen 10. eta 46.1 artikuluen arabera, bi kasuetan, foru agindu hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke, hala badagokio.

A modo indicativo:

| Taxis activos | Autorizaciones extraordinarias máximas por cada turno |
|---|---|
| 4 a 7 | 1 |
| 8 a 12 | 2 |
| 13 a 17 | 3 |
| 18 a 22 | 4 |
| 23 a 27 | 5 |
| 28 a 32 | 6 |
| 33 a 37 | 7 |
| 38 a 42 | 8 |
| 43 a 47 | 9 |
| 48 a 52 | 10 |
| Y así sucesivamente | |

QUINTO.- Ordenar la publicación de esta Orden Foral en el Boletín Foral de Bizkaia. De forma complementaria, se publicará en el espacio del portal de internet (bizkaia.eus) reservado a este tipo de resoluciones.

SEXTO.- Contra esta Orden Foral, que agota la vía administrativa, se podrá interponer potestativamente recurso de reposición ante la Diputada de Transportes, Movilidad y Turismo en el plazo de un (1) mes, conforme a los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, o bien directamente recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos (2) meses ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, conforme a los artículos 10 y 46.1 de la Ley 29/1998 reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en ambos casos, desde el día siguiente a la notificación de esta Orden Foral, todo ello sin perjuicio de que se pueda ejercitar, en su caso, cualquier otro recurso que estime procedente.

Edonola ere, zeuk ebatziko duzu / No obstante, Vd. resolverá

Aurreko txostena onartzen da, eta hartan proposatutakoarekin bat ematen da ebazpena

Se acepta el informe que antecede y se resuelve, conforme a lo que en el mismo se propone

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8DCJ-5XSG-KOOR-4AA7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus